



euskalmendizale**federazioa**

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

FEDERAZIO-LIZENTZIEN

ARAUDIA

**2015EKO AZAROAREN 7AN
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN
BATZARREAN ONARTUA**

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Lehenengo xedapena.- Araudi hau urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoan, jasotako arauen garapena da, zehazki, 24.2. artikuluan jasotakoena; horrela, aipatutako lege-agindu horretan jasotakoa betez, Euskal Mendizale Federazioak, araudi honetan, federazio-lizentzien agiri-erregimena, kirol-erregimena eta erregimen ekonomikoa arautu ditu.

Bigarren xedapena.- Araudi arautzaile hauen arabera:

- Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legea, ekainaren 11koa.
- Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko Kirol Federazioen eraketa eta funtzionamendua arautzen duena.
- Euskal Mendizale Federazioaren (aurrerantzean, EMF) Estatutuak.

EMFk promulgatu duen federazio-lizentziei buruzko araudi honek EMFko estamentu guztietan federazio-lizentzien izapidetzea eta jaulkipena arautzea du xede.

Federazio-lizentziak izapidetzearekin eta jaulkitzearekin lotuta dauden baina berriaz araudi honetan jasota ez dauden gaiak adierazitako araudiaren arabera ebatziko dira.

1. artikulua.- Federazio-lizentzien izaera eta eraginak

1.1.- Federazio-lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da; titularrari EMFko kide izaera ematen dio, eta lehiaketa ofizialetan nahiz goragoko lehiaketetan parte hartzeko gaitzen du, betiere, lehiaketa bakoitzean diren araei jarraituz.

1.2.- Federazio-lizentzia bakarra izango da, eta, horren bidez, titularra EMFri eta dagokion lurralde-federazioari atxikita egongo da aldi berean.

1.3.- Pertsona fisikoak eta juridikoak EMFko eta dagokien lurralde-federazioko kide bihurtuko dira dagokien lizentzia jaulkitzearekin batera.

2. artikulua.- Federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedura

2.1.- Federazio-lizentziak EMFk jaulkiko ditu beti.

2.2.- Lurralde-federazioak arduratuko dira federazio-lizentzia horiek izapidetzeaz, euren lurralde-eremuko klubek egiten dizkieten eskaerak bideratuz; horretarako, honako eskumen eta ahalmen hauek izango dituzte:

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

- a) Beren lurralde-eremuko klubei jakinaraztea federatu ahal izateko bete beharreko baldintzak eta federazio-lizentziaren titularra izateak dituen eraginak.
- b) Federazioko kide izateko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasotzea.
- c) Lizentzien zenbateko osoa kobratzea, eta zenbateko hori EMFri ordaintzea.

Lurralde-federazioek eskarien sortak osatuko dituzte, euren lurralde-eremuko klubek bidalitako eskaerez osatutakoak, eta EMFri igorriko dizkiote, horretarako ezarritako bideak erabiliz.

Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoak, 12. artikuluan araututakoarekin bat etorrituz, lurralde-federazioek izapidetuko dituzte klub berriak euren lurralde-eremuan, eta, beraz, eskaera egin duen klubak legeak ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatu beharko dute, klubari baiezkua edo ezezkoa emateko orduan.

2.3- Alta emateko, luzatzeko eta bikoizteko eskariak mendizalea kide duen klub baten bidez egin behar dira nahitaez, eta klub hori izango da lurralde-federazioari emandako datuen egiazkotasunaren erantzule.

- Ez dira onartuko mendizale batek zuzenean, klubaren bitartekaritzarik gabe, egindako eskaerak.
- Federatuei ez zaizkie zuzenean emango txartelak, klubari baitagokio zeregin hori, ezinbesteko kasuetan izan ezik; klubeko lehendakariak edo arduradunak justifikatu beharko ditu kasu horiek, eta lurralde-federazioari aurrez jakinarazi beharko dio klubak. Interesatuak NANA aurkeztu behar du.
- Klubei gomendatzen zaie altak federazioan ez izapidetzeko, bazkideek aurrez onartu edo eskatu ez badituzte.

2.4.- Lurralde-federazio batek EMFri igorritako lizentzia-eskaeren sortak honako agiri hauek izan behar ditu beti:

- Federatuko diren pertsonen zehaztasunak, beharrezkoak diren datu guztiekin.
- Kitapen ekonomikoa eta ordaindu izanaren egiaztagiria. (Diru-sarrerari dagokion kontzeptuan, klubaren izenak agertu behar du nahitaez, modu egokian identifikatu ahal izateko).

Ez da izapidetuko aurrez ordaindu ez den sortarik, eta ez da onartuko eskudiruan edo bankuko txeke bidez ordaintzea, lurralde-federazioak aurkakoa esan ezean.

2.5.- Lizentziak urte osoan izapidetu ahal izango dira, abuztuan izan ezik, hilabete horretan EMF itxita baitago. Beraz, afiliatutako klub guztiek euren bazkideek eskatutako izapideak egin behar dituzte nahitaez, estatutuek hala ezartzen dutelako, eta ezin dute muga-egunik jarri horretarako. Bada salbuespen bat: klub jakin batek oporrak hartzeko edo ezinbestek bultzatuta itxi behar duenean.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

Dena den, klubak bazkideari jakinarazi behar dio bere lizentzia-eskaera noiz izapidetzea aurreikusten duen, eta adierazi behar dio ez dela aseguratuta egongo eskaera lurralde-federazioan izapidetu arte.

2.6.- Izapideak eskuz egiteko sistema

- a. Izapideak eskuz egitea erabakitzen duten klubek aurrez erabaki horren berri emango diote dagokien lurralde-federazioari.
- b. Lurralde-federazioak emango dizkie sorten zehaztasunei eta likidazioari buruzko inprimakiak (altak, luzapenak eta bikoizketak). Letra larriz bete behar dira, eta klubaren zigilua izan behar dute. Klubak inprimakien bi kopia entregatuko ditu, lurralde-federazioak zigilatu eta aurkeztu duenari itzul diezaion.
- c. Lurralde-federazioak tasa bat aplikatu ahal izango du eskuz izapidetutako alta eta luzapen bakoitzagatik, datuak programa informatikoan txertatzeko egin beharreko lanaren truke.

2.7.- Aldez aurreko osasun-azterketa

Indarrean dagoen araudia betez, federazio-lizentzia izapidetzeko, dagokion osasun-azterketa gainditu duela egiaztatu beharko da. Dena den, EMFko Batzar Nagusiak zehaztuko du federazio-lizentzia lortzeko ezinbesteko baldintza gisa zein kategoria edota modalitatetan eskatuko den azterketa hori egitea.

2.8.- Federatuei baja ematea

Eskaera bat edo sorta bat lurralde-federaziora bidali ondoren, ez da onartuko sorta edo eskaera horretako federaturen baten baja-ematea, ez eta hautatutako estaldurak aldatzea ere, lizentzia oraindik indarrean ez egon arren (azaroan eta abenduan izapidetutakoak hurrengo urteari begira).

Salbuespenak

Federatuen bajak onartuko dira ondorengo kasu hauetan, horiek indarrean izatea egokia ez dela iritzita:

- Federatu beharreko pertsona aurrez beste klubean batean federatuta dagoenean.
- Federatu beharreko pertsona artekaritza edota bitartekari berak kudeatutako beste mendi-federazio baten aurrez federatuta dagoenean.
- Federatu beharreko pertsona aurrez beste identifikazio-zenbaki batekin federatuta dagoenean.
- Federatu beharreko pertsona alta izapidetu aurretik hiltzen denean, eta klubak heriotzaren berri ez zuelako alta izapidetu duenean.

(*) Salbuespen horietan jaso gabeko kasuetan, EMFren Zuzendaritza Batzordearen onarpena beharko da.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

2.9.- Kluba aldatzea

Ez da inoiz onartuko federatuek kluba aldatzea, horien lizentzia indarrean dagoenean edo lurralde-federazioan izapidetu denean.

2.10.- Datuen babesa

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legea betetzeko, federatu guztiei jakinarazi behar zaie federazioak nola eta zertarako erabiliko dituen datu horiek. Lizentzia egiteko edo berritzeko eskatzeko unean, klubak "lege-jakinarazpenaren" kopia (ikus 1. eranskina) emango dio federatuari, edo, bestela, irakurtzeko utziko dio.

3. artikulua.- Izaera arautua

Lizentzien jaulkipenak izaera arautua izango du, eta, beraz, ezin izango da lizentzia ukatu eskatzaileak lizentzia eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen dituenean.

Behar bezala formalizatutako eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, gehienez hilabeteko epean izapidetuko, jaulkiko edota, hala dagokionean, ukatuko dira lizentziak.

Lizentziak izapidetzea edo jaulkitzea ukatzen dela espresuki jakinarazten denean (arrazoiak emanek ukatu beharko da), edota lizentzia egiaztatzen duen agiria eskuratzeko ukatzen denean, errekurtsioa jarri ahal izango da, dagokion Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan kirolean eskumenak dituen zuzendaritzaren aurrean, 7 egun naturaleko epean. Horretarako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean gora jotzeko errekurtsioetarako ezarritako erregimenari jarraituko zaio.

4. artikulua.- Federazio-lizentziaren titularraren eskubideak

EMFko estamentuetako kideek honako eskubide hauek izango dituzte gutxienez, federazio-lizentziaren titularrak diren aldetik:

- a) Federazioko organoetan ordezkaritza izatea eta haietako kide izatea, aplikagarria den araudiaren arabera ezarritako eran, baldintzetan eta proportzioan.
- b) EMFk antolatutako jarduera guztietan parte hartzea, jarduera horiek arautzeko ezarritako arauen arabera.
- c) EMFri eta kide diren lurralde-federazioari buruz eskatutako informazioa jasotzea, indarrean den legedian aurreikusitakoarekin bat etorruta.
- d) Federazioko organo eskudunetara jotzea, federazioko arauak bete daitezela eskatzeko.
- e) Egoki iruditzen zaizkien kontsultak eta erreklamazioak egitea, EMFren arauen arabera.
- f) Federazio-lizentzia egiaztatzen duen agiria izatea.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

5. artikulua.- Federazio-lizentziaren titularraren betebeharrak

Federazioko estamentuetako kideek honako betebeharrak izango dituzte, EMFren estatutuetan ezarritakoez gain:

- a) Ezarritako kuotak ordaintzea.
- b) Federazioko organoek hartutako erabaki guztiak betetzea, horretarako eskumena duen organoak baliogabetzen edo bertan behera uzten ez dituen baditu.
- c) Federazioaren helburuak lortzen era aktiboan parte hartzea.
- d) Hala dagokionean, dituzten karguei atxikitako betebeharrak leialki betetzea.
- e) Euskadiko selekzioek eta lurraldeko selekzioek kirol-lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

6. artikulua.- Federazio-lizentziaren iraupena eta indarrean jartzea

Federazio-lizentziak denboraldi bakar bateko iraupena izango du, hau da, urte horretako urtarrilaren 1etik abenduaren 31 artekoa.

Lizentzia indarrean jarriko da, beraz, ematen edo gaitzen den une berean; eta urte horretako abenduaren 31n amaituko da beti, jaulkitzen edota gaitzen den data dena delakoa izanik ere.

7. artikulua.- Federazio-lizentzien kategoriak

Hauek dira federazio-lizentzien kategoriak:

KIROLARIEN KATEGORIAK
HAURRAK: kategoria honetan sartuko dira 13 urte edo gutxiago dituzten federatuak, lurralde historikoetan kirolaren arloan eskumena duten foru-organoen baimena dutenak.
GAZTEAK: kategoria honetan sartuko dira 14 urtetik 17ra bitarteko federatuak (biak barne).
HELDUAK: kategoria honetan sartuko dira 18 urtetik 64ra bitarteko federatuak (biak barne).
ONURADUN HELDUAK: kategoria honetan sartuko dira, HELDUEN kategoriako baldintzak betetzeaz gain, etxebizitza berean beste federatu batekin bizi diren federatuak.
65 URTETIK GORAKOAK: kategoria honetan sartuko dira 65 urtetik gorako federatuak.
65 URTETIK GORAKO ONURADUNAK: kategoria honetan sartuko dira, 65 URTETIK GORAKO HELDUEN kategoriako baldintzak betetzeaz gain, etxebizitza berean beste federatu batekin bizi diren federatuak.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

TEKNIKARIEN KATEGORIAK

HELDUAK: kategoria honetan sartuko dira, beren lurralde-federazioak eskatutako baldintzak kontuan hartuta, teknikari taldean sartzea aukeratzen duten 18 urtetik 64ra bitarteko federatuak (biak barne).

ONURADUN HELDUAK: kategoria honetan sartuko dira, HELDUEN kategoriako baldintzak betetzeaz gain, etxebizitza berean beste federatu batekin bizi diren federatuak.

65 URTETIK GORAKOAK: kategoria honetan sartuko dira, beren lurralde-federazioak eskatutako baldintzak kontuan hartuta, teknikari taldean sartzea aukeratzen duten 65 urtetik gorako federatuak.

65 URTETIK GORAKO ONURADUNAK: kategoria honetan sartuko dira, 65 URTETIK GORAKO HELDUEN kategoriako baldintzak betetzeaz gain, etxebizitza berean beste federatu batekin bizi diren federatuak.

EPAILEEN KATEGORIAK

HELDUAK: kategoria honetan sartuko dira, beren lurralde-federazioak eskatutako baldintzak kontuan hartuta, epaile taldean sartzea aukeratzen duten 18 urtetik 64ra bitarteko federatuak (biak barne).

ONURADUN HELDUAK: kategoria honetan sartuko dira, HELDUEN kategoriako baldintzak betetzeaz gain, etxebizitza berean beste federatu batekin bizi diren federatuak.

65 URTETIK GORAKOA: kategoria honetan sartuko dira, beren lurralde-federazioak eskatutako baldintzak kontuan hartuta, epaile taldean sartzea aukeratzen duten 65 urtetik gorako federatuak.

65 URTETIK GORAKO ONURADUNA: kategoria honetan sartuko dira 65 URTETIK GORAKO HELDUEN kategoriako baldintzak betetzeaz gain, etxebizitza berean beste federatu batekin bizi diren federatuak.

KLUBEN ETA KIROL-TALDEEN KATEGORIAK

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Kategoria honetan sartuko dira EMFn izena emanda duten klubak eta kirol-taldeak, talde gisa eraikitzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen dituztenak eta beren jarduerarekin esparrua mendia dutenak.

8. artikulua.- Federazio-lizentzien kuotak

EMFren batzarrak, urtero, federazio-lizentziak izapidetzeagatik eta emateagatik ordaindu beharreko kuotak zehaztuko ditu.

Euskal Mendizale Federazioak eta lurralde-federazioek euren artean banatuko dute lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia, Euskal Mendizale Federazioaren Batzar Nagusian onartutako moduan. Honela lortuko da zenbateko garbi hori: zenbateko gordinari artikuluko 8.1 idatz-zatiko a) eta d) letretan ezarritako zenbatekoak kenduko zaizkio. Lurralde-federazioek edo Euskal Mendizale Federazioak jasoko duten zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, lehen aipatutako zenbateko garbiaren % 35 baino txikiagoa.

EMFk eta mendiko lurralde-federazioek borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango dute beren federatuengandik, federazio horien zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko.

8.1.- Kuotak banakatzea

Lizentziari dagokion kuota honela banakatuko da:

- a) Nahitaezko aseguruaren kuota: titularraren osasun-arriskuak estaltzen dituen osasun laguntzako aseguruaren, erantzukizun zibileko aseguruaren eta heriotzagatik eta galera anatomiko eta funtzionalengatik kalte-ordainen aseguruaren kuota, hain zuzen.
- b) Euskal Herriko kirol-federazio honen egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
- c) Lurraldeko kirol-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
- d) Dagokien lurralde-eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala badagokio.

8.2.- Aseguruaren kuota

Atal honetan, federatuak honako estaldura geografiko hauek hautatu ahal izango ditu:

- A) ESTATURAKO ESTALDURA = OINARRIZKO ESTALDURA
- B) ESTATURAKO + PIRINIOETARAKO ESTALDURA
(FRANTZIAKO PIRINIOAK + ANDORRA + PORTUGAL + ATLAS)
- C) ESTATURAKO + MUNDURAKO ESTALDURA

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

Horrez gain, federatuek honako aukera hauek izango dituzte estaldura zabaltzeko (estaldura horien kuotak hasiko den denboraldiaren kuoten argitalpenean zehaztuko dira):

1. Espedizioa
2. Eski alpetarra
3. Snow-a
4. BTT-a
5. FEDMEren lizentzia

8.3.-

LUZAPENAK: luzapenak izapidetzeagatik (FEDMEren luzapena, aseguruaren luzapena edota aukerena), urteko kuoten argitalpenean zehaztutako zenbatekoa ordainduko da.

BIKOIZKETAK: federazio-txartela berriz emateagatik, urteko kuoten argitalpenean zehaztutako zenbatekoa ordainduko da.

OHARRA: balizatutako estazioetan iraupen-eskia egiten dutenek edota igogailu mekanikoak erabiltzen dituztenek eski alpetarraren aukera hautatuta izan behar dute.

8.4.- EMF izango da indarrean dagoen legedian jasotako arriskuen nahitaezko estaldura bermatzeko aseguru kolektiboak kontratatzeko eskumena duen bakarra

Aseguru kolektibo horiek urtebeterako kontratatuko dira, eta kirol-denboraldi osorako estaldura eskainiko du.

Federazio-lizentzia bakoitzak aseguru bat edo batzuk izango ditu berekin; aseguru horiek ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuak, nahitaezko kirol-aseguruaren gutxieneko prestazioak ezartzen dituenak, zehaztutako estaldurak bermatu behar dituzte gutxienez.

EMFk kontratatutako nahitaezko aseguruaren estaldurak, aurreko idatz-zatien arabera, berdinak izango dira pertsona fisikoen federazio-lizentzia guztientzat, kasu bakoitzari dagokion lurralde-federazioa kontuan hartu gabe.

EMFk federatu guztien eskura jarriko du hitzartutako polizen zerrenda eta horien baldintzen kopia, bere webgune ofizialean argitaratuz beroriek; gune horretan zehaztuko dira, beraz, bermatuta gelditzen diren estaldurak eta prestazioak.

Dagokion urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan argitaratuko da hori guztia.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

9. artikulua.- Federazio-lizentzien formatua eta edukia

9.1.- Federazio-lizentzien formatua elebiduna izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira; hau da, gaztelania eta euskara.

9.2.- Federazio-lizentziaren agiriaren edukia honako kontzeptu hauek osatuko dute:

1. EMFren identifikazioa, jaulkiko duen federazioa den aldetik.
2. Lizentziaren urteko iraupena.
3. Lizentziaren titularra den pertsona fisikoaren datu pertsonal guztiak.
4. Lizentziaren titularra den pertsona fisikoa kide den klubaren datuak.
5. EMFko lehendakariaren sinadura edota hark berariaz ordezkaritza eman dion pertsonarena.
6. EMFren zigilua.

Lizentziaren agirian, argi eta garbi jasoko dira kuota osatzen duten kontzeptu ekonomikoak, aurrez aipatu diren horiek.

10. artikulua.- Lizentzien bateragarritasuna

EMFk emandako lizentzia baten titularra den pertsonak hainbat kirol-modalitatetako federazioei dagozkien federazio-lizentziak eduki ahal izango ditu.

Ez da inola ere onartuko pertsona berak kirol-modalitate bereko, kirol-diziplina bereko edo estamentu bereko lizentziak izatea lurralde historiko batean baino gehiagotan.

Azken xedapena, lehenengoa.- Araudi honek aurreko xedapen guztiak eta araudian jasotakoaren aurkako xedapen guztiak indargabetzen ditu.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Azken xedapena, bigarena.- Araudi honetan jasotako arauak EMFren Batzar Nagusian onartu eta Eusko Jaurlaritzako kirol-erakundeen erregistroan inskribatutakoan jarriko dira indarrean.

Idazkaria

Presidentea

ESTIBALIZ KEREXETA FERNANDEZ

JOSEBA UGALDE EGAÑA

**1. ERANSKINA.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKO
LEGE-JAKINARAZPENA**

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ARAUDIA **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

1. ERANSKINA – FEDERATUARENTZAKO INFORMAZIOA

(Federatu bakoitzak informazio honen kopia jasoko du)

IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKO LEGE-JAKINARAZPENA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu inprimakien edo euskarri informatikoen bidez erregistratutako datuak Federazioaren lizentziarekin lotutako zerbitzuak eskaintzeko erabiliko direla soilik, eta **Euskal Mendi Federazioaren** jabetzako fitzategi informatiko batean gordeko direla; fitzategi hori Datuak Babesteko Agentzian inskribatuta dago. Era berean, Federazioaren araudian ezarritakoa betetzeko, lurralde-federazioek eta klubek Euskal Mendizale Federazioak lizentzia jaulkitzeko behar duen dokumentazioa izapidetuko dute soilik, lege-trataera egokia emango diote, eta datu horiek eman ziren xederako erabiliko dira soilik.

Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, kentzeko, ezerezteko edo horien aurka egiteko, eta Euskal Mendizale Federazioa igorri beharko dute ekintza horiek egiteko eskabidea (Errotaburu pasealekua, 1 -9.a – Donostia, Gipuzkoa). Eskabide horretan, ondorengo datu hauek jaso behar dituzte: interesatuaren izen-abizenak, jakinarazpenak igortzeko helbidea, eta nortasun agiriaren edo pasaportearen fotokopia. Eskaera ordezkoren baten bitartez eginez gero, horren agiri fede-emailea aurkeztu behar da. Eskatutako datuak nahitaezkozat jotzen dira zehaztutako helburua betetzeko. Zure datuak horrela erabiltzea nahi ez duzula adierazi ezean, erabilera hori onartu egiten duzula ulertuko da, bai eta aipatutako erakundeen esku uzten dituzula ere.